

Nafarroako Esaera Zaharrak. Narbarte.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:
Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.
Bertsio informatiko honen egilea:
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Narbarte.

- 1660 *Apezak bein meza aurretik oiu egin omen zuen: Emen da Apeztegikua?*
Lakoizketakua emen da aspaldi.
Apeztegia elizaren ondoko etxea, Lakoizketa berriz urrutienea; nonbait urrutikoa, urbillekoa baño lenago etortzen elizara.
- 1661 *Arbol ustelian egurra aixe egiten da.*
- 1662 *Astoputzak baño fundamentu gei(a)go ez du orrek.*
- 1663 *Aundi nai ta galtza zar.*
- 1664 *Beriak eta bertze batenak aitu ttu (aditu ditu).*
"Bereak eta asto beltxarenak".
- 1665 *Dantzatuko yaut!*
"Yoko aut, zanpatuko aut".
- 1666 *Elur urte, urte on.*
- 1667 *Etxeko autsekin estaltzen da sua: iñork ez daki zenbat bertzun auts eman zaion.*
Bertzun, bertzoin, burtzin = sukaldeko tresna ezaguna.
- 1668 *Lasterra(r)i eman, eta agudo geldi.*
Ain bizi asi, eta bereala geldi.
- 1669 *Maiz "amos" nai, maiz zarpil.*
Beti dotore nai ta... "Amos" erderaz = nagusi.
- 1670 *Mingaña leku bistian dago ta zauli ibiltzen da.*
Itzontzikeria kaltegarri.
- 1671 *San Pedrok san Martiñeri: Martin, loizu! San Martiñek san Pedrori: Ez zarra ta ez berri!*
- 1672 *Zaian zur ta iriñean samur.*
- 1673 *Zure kuartuak ez badu idukitzen sedretua, nola nai duzu zure salak idukitzia?*
Zerorrek ez badakizu ixiltzen, nai duzu zureak ixiltzea?